

Roser Barrufet i Soldevilla  
*Koadroko emakumearen bila*  
Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola  
Ibaizabal, Ameslari bilduma  
Bilbo, 2002

### ***Best-seller* erromantiko eta erakargarri bat**

Duela urte batzuk Ken Follett-ek *best-seller* direlakoak idazteko aholkuak ematen zituen liburuxka bat irakurri nuen. Ohikoa da genero baten maisua bere lanaz *ex cathedra* ezezik halako paternalismo tonuaz ere mintzatzea. Bada, esango nuke han aipatzen ziren ezaugarri guzti-guztiak dituela *Koadroko emakumearen bila* gaurkoan aipagai dugun liburuak. Eta ez diot hori inola ere mesprezuz; izan ere, maisuaren eredura idazten asmatzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, eta, gainera, esan ohi denez, milioika-lagunek-irakurtzen-dutena-ezin-da-txarra-izan.

Luis Duran izeneko margolaria da istorio honetako protagonista; krisi sakonean dagoela, Tibetera doa oportretan eta han, baraualdi luze baten eraginez, toki-denbora koordenadak aldatuta aurkitzen da bat-batean, Errenazimentu garaiko Florentzia hirian, Medicitarren aldi iskanbilatsuan. Hona hemen Follett-ek aipatutako osagai garrantzitsu bat: fikziozko istorioa gertakizun historiko ezagunen testuinguruan kokatzearena.

Florentziako egonaldian garaiko artistarik ospetsuenak ezagutzeko aukera du: Leonardo da Vinci, Verrocchio, Botticelli..., eta horiekin batera, Paolo Tempi pertsonaia misteriozua ere bai. Horien lagun mina eginik, eta etorkizunetik etorria dela jakinik, garaiari buruzko datu historiko eta artistiko ugari tartekatzen ditu, funtzio hezitzaileari men eginez.

Hala ere, irakurlea erakartzeko kako indartsua amodio istorio bat da, Duran protagonistaren eta goi mailako Adriana Montialbiati izeneko andrearen artekoa hain zuzen ere. Amodio ero sutsu erromantikoa, gainera, mendeen gainetik dirauena, amaierako korapilo-askatzean zeharka adierazten zaigun legez. Ekintza ugari ere ez da falta eleberri honetan, horixe baita arestian aipatutako adituaren beste lege pisuzko bat.

Horrelako fikzio mota, haatik, ezin da “serioegi” hartu: behar bezala azaldu gabeko kontu batzuk uzten direlako, protagonista patuaren esku geratutako sakontasunik gabeko pertsonaia delako, hari nagusiarekin harremanik gabeko azalpen erretoriko gehiegi tartekatzen direlako. Horregatik, hain zuzen ere, gazte literaturaren goiko aldeko muga kokatu dute eleberri hau, helduen literaturarekin mugetan dagoen horretan, gazteen mundu kultural-errefentzial osatu gabean eraginkorra izan daitekeelakoan.

Manu Lopez Gaseni